billabona@  
ikastola.net

ZARAUTZ  
Oteitza  
943-11.10.00  
informazioa@  
oteitzalp.org

ZARAUTZ  
Salbatore Mitxelena  
943-83.17.52  
zarautz@ikastola.net

...

## NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA

948-22.21.96  
nie@ikastola.net

ALTSASU  
Iñigo Aritzua  
948-56.29.51  
altsasu@ikastola.net

ATARRABIA  
Paz de Ziganda  
948-13.66.14  
pziganda@ikastola.net

BERA  
Labiaga  
948-63.01.72  
bera@ikastola.net

ELIZONDO  
Baztan  
948-45.24.48  
baztan@ikastola.net

ETXARRI ARANATZ  
Andra Mari  
948-46.02.86  
etxarri@ikastola.net

IRUNBERRI  
Arangoiti  
948-88.04.53  
irunberri@ikastola.net

IRUÑEA  
Jaso  
948-25.05.46  
jaso@ikastola.net

LESACA  
Tanturumairu  
948-63.73.08  
tanturumairu@lesaka.  
ikastola.net

LIZARRA  
Lizorra  
948-55.37.57  
lizarra@ikastola.net

LODOSA  
Ibaialde  
948-69.46.54  
lodosa@ikastola.net

TAFALLA  
Garces de los Fayos  
948-70.07.28  
tafalla@ikastola.net

TUTERA - FONTELLAS  
Argia  
948-82.51.37  
tutera@ikastola.net

VIANA  
Erentzun  
948-44.62.65  
biana@ikastola.net

ZANGOZA  
Rincón del Carmen  
948-87.09.83  
zangoza@ikastola.net

ZIZUR TXIKIA  
San Fermin  
948-18.39.03  
sfermin@ikastola.net

...



Ikasketa praktikoetan oinarritutako  
hezkuntza eredu propioa.  
**IKASTEN IKASTEKO PREST!**



Euskal Herriko enpresa talde handienaren kide.  
**ENPRESEKIN ELKARLANEAN  
ARITZEKO PREST!**



Etorkizuneko unibertsitatea,  
berrikuntza eta ikerkuntzaren bidetik.  
**AURRETIK JOATEKO PREST!**

...eta gainera,  
aukera gehiago.

**UNIBERTSITATEA  
BIZITZEKO  
PREST!**







Ezkerretik hasita zutik: Ibai Goñi, Leire Olarra, Idoia Aiestaran, Jatsu Ormazabal, Ander Agirrezabala eta Ana Urbizu.

# DBH

## 12-16 urte

### Ostadar proiektua

HAMABI URTETIK GORA DITUZTE. Ez dira dagoeneko umeak, baina ez dira gazteak ere. Erdi bidean daude, aro batetik bestera igarotzen. Pirritx eta Porrotx atean aurkitu dituztelarik, erdeinu pixka batekin begiratu diete pailazoei, umetako kontuak balira bezala. Baina pailazoak hurbildu egin zaizkie, eta dantzan egiteko gonbitea aski izan dute haiekin dantzan hasteko. Galdakaoko

Eguzkibegi ikastolan gaude. DBHkoekin.

ESO. TIENEN MÁS DE 12 AÑOS. Ya no son niños, pero aún no son jóvenes. Al ver a Pirritx y Porrotx en la puerta, los miran con cierto rechazo, como si los payasos fueran cosa de niños. Pero basta una invitación de ellos dos para que comiencen a bailar.

Estamos en Eguzkibegi de Galdakao.

SECONDAIRE. A PLUS DE DOUZE ANS ce ne sont déjà plus des enfants mais ils ne sont pas non plus entré dans l'adolescence. C'est une étape de transition. Ils regardent Pirritx et Porrotx avec un peu de dédain, comme pour leur dire qu'ils ne sont plus des enfants. Mais quand les clowns s'approchent et les invitent à danser, ils jouent le jeu. Nous sommes à l'ikastola Eguzkibegi de Galdakao, avec les élèves du Secondaire.

DBH



1. Neskak taldean, arrosaz jantzita, argazkirako paratuta / 2.3.7. Nerabeak dira, badute beren nortasuna / 4.9. Elektrogailuei tripak begiratzeko / 5. Jantzera talde adierazpen bihurtzen da / 6. Bidezko merkataritza lantzeko tailerra



**OLENTZERO IRISTEKO BI EGUN FALTA DIRA.** Eta giro berezia zegoen ikastolan. Umeagoei, LHkoei, Olentzerok bisita egiten die eta haur guztiak liluratuta uzten ditu. DBHkoek, ordea, handiagoak direnez, kantu lehiaketa antolatzen dute. Arratsaldean bai, kalejira egiten dute Olentzerorekin eta panpina erretzen dute.

**FALTAN DOS DÍAS PARA QUE LLEGUE OLENTZERO.** Los pequeños de Primaria reciben su visita. Los de ESO organizan un concurso de canto. Ya por la tarde, hacen un pasacalles con Olentzero y queman el muñeco.

**PLUS QUE DEUX JOURS AVANT OLENTZERO.** Les petits du Primaire accueille à Olentzero. Ceux du Secondaire organisent un concours de chant. L'après-midi, ils défilent avec Olentzero avant de brûler la poupée.

**ELEKTROGAILUEI TRIPAK BEGIRATZEN.** Hirugarren mailakoak erresistentziak seriean eta paraleloan muntatzen ari ziren teknologia gelan. "Elektronikarako oinarriak ematen ari gara", esan zuen irakasleak. Ikasleen artean dagoeneko sumatzen omen ditu ingeniari batzuk. Inoiz sakelako telefonoak konpontzen ere aritu dira.

**LAS TRIPAS DE LOS ELECTRODOMÉSTICOS.** Los de tercero, en el aula de tecnología, donde montan resistencias en serie y en paralelo. "Estamos aprendiendo las bases de la electrónica", dice el profesor.

**LES TRIPES DES APPAREILS ÉLECTROMÉNAGERS.** En salle de technologie, les élèves montent les résistances en série et en parallèle. "Nous apprenons les bases de l'électronique".

**MATEMATIKAKO KONTROLA EGITEN FORMAL ASKO.** Bigarren orduan azterketa zuten, eta ikasleak zein formal eta zintzo zeuden begira egon ginen. "Oso gutxi dira matematikoi fobia diotenak".

**FORMALES, EN EL CONTROL DE MATEMÁTICAS.** Ana Mezo imparte Física y Matemáticas en 4º de ESO. En la segunda hora, tenían examen. "Muy pocos tienen fobia a las Matemáticas".

Sérieux pendant le contrôle de mathématiques. Ana Mezo enseigne la physique et les mathématiques en 4<sup>ème</sup> année. En deuxième heure, les élèves ont un contrôle. "Très peu ont la phobie des mathé".

Ana Mezo  
EGUZKI BEGI IKASTOLA  
IKASKETA BURU

# GALDA- KAON, EGUZKIBEGI IKASTOLAN, O URTEREKIN

**HASI ETA 16 URTERA BITARTEKO IKASLEAK DITUGU.** Bigarren Hezkuntzan sartzen direnean ikasleengan aldaketa nabariak antzematen dira, nerabezaroan bete betean sartzen direlako. Gorputzean aldaketak jasaten dituzte. Sentimenduen nahaste handia sortzen zaie, era askotariko sentimenduen nahasketa. Jendartea ikusteko modu desberdinak zabaltzen zaizkie, arrisku propioak ere agertzen dira. "Bai" eta "Ez" esaten ikasi behar dute. Egoera bakoitzari bere neurria hartzen ikasi beharko dute. Lagun taldea finkatzen ari dira. Harreman mundu zabala jartzen zaie aurrean. Helduen aroaren atarian daude.

- Derrigorrezkoa den hezkuntzaren azken txanpa denez, arestian esandako guztia ahalik eta era egokienean igarotzeko hezi behar ditugu.
- Ikasketek berebiziko garrantzia hartzen dute, bizitza-proiektua itxuratzen hasten ari dira eta. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza honi dagozkion erronkei aurre egiten lagundu behar diegu. Prestakuntza integrala ematen ahalginak egingo ditugu, curriculum orekatuaren bitartez, arlo zientifikoa, humanistikoa, teknologikoa, hizkuntzako eta abar kontuan hartuta. Batxilerrera joateko zein zikloetara zein lan munduan integratzeko prestatu behar ditugu.
- Honek guztiak familia eta ikastolaren arteko elkar-lana eskatzen du. Egiteko guztiak arrakastatsuak suertatuko dira denon parte hartzearekin.

**EN GALDAKAO, EN LA IKASTOLA EGUZKIBEGI, TENEMOS ALUMNADO ENTRE 0 Y 16 AÑOS.** Cuando llegan a la Enseñanza Secundaria, se observan grandes cambios, porque entran de lleno en la adolescencia. Cambios en el cuerpo y en los sentimientos. Deben aprender a decir "sí" y "no". Se está estableciendo el grupo de amigos. Los estudios tienen gran importancia, porque se está modelando el proyecto de vida. Nos esforzamos en ofrecer una formación integral, teniendo en cuenta las áreas científica, humanística, tecnológica, de idiomas y demás. Esto exige un trabajo conjunto entre la familia y la ikastola.

**A L'ENTRÉE AU COLLÈGE, EN PLEINE ADOLESCENCE, ON OBSERVE DE PROFONDS CHANGEMENTS CHEZ LES ÉLÈVES.** Changements physiques et grand mélange de sentiments. A cette période peuvent également apparaître certains risques. Les élèves doivent apprendre à dire "oui" ou "non", prendre des décisions. Le groupe d'amis se forme. Etant en fin de scolarité obligatoire, notre mission est d'aider les élèves à affronter l'avenir de la meilleure façon possible. Les études sont très importantes, elles permettent de préparer un projet de vie. Nous nous efforçons de dispenser une formation complète, à travers un curriculum équilibré et en prenant en compte entre autres les domaines scientifique, humaniste, technologique et linguistique. Cela suppose un travail d'étroite collaboration entre la famille et l'ikastola.



8.21. Zintzo erantzun zioten argazkirako egindako deialdiari / 10. Ingelesez ari ziren Social Sciences-eko aurkezpena egiten / 11.20. Herri kirolean jo-ta-su / 13. Gutxi dira matematikari fobia diotenak / 7.16. Ipuin kontalariari adi-adi entzuten



**AURKEZPENA EGITEN ARI ZIREN SOCIAL SCIENCES-EN.** Taldeka arbelera atera eta ingelesez mintzo ziren, urduri samar batzuk, lasaiago besteak. "Multinazionalei buruzko lan bat egin dugu", esan zigun Amagoiak. Arratsaldean, bidezko merkataritzaren inguruan egitarau zabala zuten (tailerrak eta eztabaidak) Eguzkibegin. **SALIERON EN GRUPO A LA PIZARRA A HABLAR EN INGLÉS.** "Hemos hecho un trabajo sobre las multinacionales". Por la tarde, talleres y debates sobre comercio justo. **LES ÉLÈVES VONT AU TABLEAU EN GROUPES POUR PARLER ANGLAIS.** "Nous avons fait un travail sur les multinationales". L'après-midi, ateliers et débats sur le commerce équitable.

**URTEAK OSTADARREKIN LANEAN.** "Guk oso gertutik jarraitzen dugu Ikastolen Elkartek ateratzen duen material didaktikoa. Ostadar proiektua hasieratik egin genuen geure. Irakasleari lana eragiten dion proiektua baita. Prestaketa mintegietan hasieratik hartu dugunez parte, talde kohesioa ematen digu", esan zuen Mezok. **TRABAJANDO CON OSTADAR.** "Hemos participado desde el comienzo en los seminarios de formación y eso nos da cohesión como grupo". **TRAVAIL AVEC OSTADAR.** "Nous travaillons avec l'ostadar depuis le début. Nous avons participé aux premières sessions de formations, cela a permis de renforcer la cohésion du groupe".

**HERRI KIROLAK EGITEN.** Kanpoan hotz egiten zuen, baina gorputz heziketako orduan herri kirolak egitera atera ziren DBH1eko ikasleak ez zeuden hotzak akabatzen, bizia jokoan balute bezala ari baitziren lehiatzen lokotx biltzen lehenik, giza proban ondoren, txingak eramaten edo sokatiran azkenik, Iñigo irakaslearen aginduetara. **DEPORTE RURAL.** Fuera hacía frío, pero no lo notaban los alumnos de 1º de ESO que practicaban deporte rural en la clase de educación física, con el profesor Iñigo. **SPORT TRADITIONNEL.** Les élèves de 1<sup>ère</sup> année n'ont pas senti le froid extérieur en pratiquant un sport traditionnel pendant le cours d'éducation physique.

**DANTZA ETA MUSIKA LANTZEN.** Olenitzeroren etorrera prestatzen ari ziren, baina ondoren San Ageda eskea etorriko da eta inauteriak segidan. Ikasturteko festa nagusien inguruan musika eta dantzak lantzen dituzte. Inauterietan bereziki herrialde bakoitzeko dantza ezberdinak ikasten dituzte, maila bakoitzean dantza bat. **BAILE Y MÚSICA.** Preparaban la llegada de Olenzero. Luego vendrán Santa Agueda y el carnaval vasco. Trabajan la música y el baile de las principales fiestas del curso. **DANSE ET MUSIQUE.** Les élèves préparent la venue d'Olenzero. Santa Agueda et le Carnaval viendront plus tard. Musiques et danses des principales fêtes sont travaillées par les élèves.







# BATXILERGOA

## 16-18 urte

ESNA DAUDENEAN ERE ORDUAK EMATEN DITUZTE

AMETSETAN. Irakaslearen agerpenak entzuten ari dira, esate baterako, gelan eserita eta izugarri urrun daude; leihotik kanpora begiratzea aski baitute, etorkizunera bidaia egiteko. Etorkizunean zer izango diren jakin nahi dute. Laster erabaki beharko dute.

Pirritx eta Porrotxekin topo egin eta, eztabaidan aritu dira.

Ingeniari, mediku, hizkuntzalari... izan nahi dute, eta zergatik ez?

Agian norbaitek pailazo. Laudioko ikastolan izan ginen.

**BACHILLERATO. INCLUSO DESPIERTOS, PASAN HORAS SOÑANDO.** Escuchando en el aula las explicaciones del profesor, pueden estar en realidad muy lejos. Quieren saber qué serán en el futuro y pronto deberán decidirlo. Han conversado con Pirritx y Porrotx.

Quieren ser ingenieros, médicos, filólogos... y tal vez, alguien, payaso. Estuvimos en la ikastola de Laudio.

**BACCALAUREAT. MÊME ÉVEILLÉS, LES ÉLÈVES PASSENT DES HEURES À RÉVASSER.** Quand l'enseignant parle, leur esprit vagabonde, ils sont dans un autre monde: il leur suffit de regarder par la fenêtre pour s'évader, se projeter dans le futur. Ils veulent savoir ce qu'ils seront demain. Ils devront vite décider. Ils débattent avec Pirritx et Porrotx. Ils veulent être ingénieur, médecin, linguiste... Pourquoi pas? Peut-être que l'un d'entre eux décidera de devenir clown. Nous sommes rendus à l'ikastola de Laudio.

Ezkerretik hasita zutik: *Beñat Karrera, Amaia Arana, Odei Esnaola, Beñat Arrospide eta Sandra Lopez*



1



1. Batxilergoan, gazteak azken txanpan, unibertsitateari begira / 2. Txikitandik elkarrekin ikastolan: badakite elkarri laguntzen / 3. Orientatzaileek garrantzi berezia dute adin honetan



2



3

**TESTU LIBURUAK BIGARREN MAILARA PASATZEN ARI DIRA.** Zer aldatu da batxilergoa ikasteko moduan? Teknologia berrien presentzia areagotu egin da. Bitarteko garrantzitsu bilakatu dira arlo gehienetan.. Moodle plataformari esker, esaterako, ikasleek etxetik egin ditzakete zenbait lan. Euskarazko materialak falta dira, ordea. Ikastolen Elkarteak badu hutsune hori betetzeko asmoa.

**LOS LIBROS DE TEXTO PASAN A UN SEGUNDO PLANO.** La presencia de las nuevas tecnologías se ha incrementado. Pero faltan materiales en euskara y la Federación de Ikastolas quiere llenar ese vacío.

**LES LIVRES PASSENT AU SECOND PLAN.** Les nouvelles technologies prennent de plus en plus de place à l'école. Grâce à Moodle par exemple, les élèves peuvent travailler de la maison.

**SELEKTIBITEA GAINDITZEN DUTEN IKASLEEN KOPURUA HANDIA DA.** Ikastoletan Batxilergoa gainditzen duten ikasleen kopurua oso altua da; %91era iristen da, EAeko batz bestekoa %80koa denean. "Selektibitateari begira lan egiten dugula aurpegiatzen digute eta kritika zuzena da, baina horrek izugarri baldintzatzen du beren ibilbide akademikoa", esan zuen Luisja Garzia zuzendariak.

**EL NÚMERO DE ALUMNOS QUE APRUEBA LA SELECTIVIDAD ES GRANDE.** "Nos echan en cara que trabajamos de cara a la Selectividad, pero es que condiciona mucho el recorrido académico".

**EPREUVE D'ENTRÉE À L'UNIVERSITÉ, "SELEKTIBITEA".** Le taux des élèves d'ikastola obtenant le bac est très élevé: 91%. "Cet examen conditionne le parcours scolaire de l'élève"

**TINDUF-ERA IKAS-BIDAIA PRESTATZEN.** Batxilergoak garrantzia berezia du ikaslearen heldutasun prozesuan ere. Laudioko ikastolan Tinduf-era, Saharako errefuxiatu eremuetara ikas-bidaia prestatzen ari ziren. Hango ikastetxe batean informatika gela bat muntatu nahi dute. Aberasgarriak dira esperientzia horiek. Sopolako ikastola izan zen aitzindari gisa honetako ikas-bidaietan

**VIAJE DE ESTUDIOS A TINDUF.** En la ikastola de Laudio preparan un viaje de estudios a los campamentos de refugiados. Quieren montar un aula de informática en una escuela de allí.

**PRÉPARATION DU VOYAGE À TINDUF.** Le bac joue un rôle important dans le processus de maturité de l'élève. Ils préparent leur voyage à Tinduf, camp de réfugiés au Sahara. Leur but est d'y monter une salle d'informatique.

Jon Bengoetxea

LAUDIO IKASTOLA IKASKETA BURU

# BATXIL- LARGOAREN HELURU NAGUSIA DBHN HASITAKO

**BIDEARI JARRAIPENA EGITEA BAINO EZ DA.** Ikasleek derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatzen dutenean bi gabezi nagusi izaten jarraitzen dute. Gabezi horiek bi multzo haue-  
tan sailka ditzakegu: • 1.- Giza eta adimen hel-  
dutasunari dagozkienak. Gure gizartean per-  
tsona heldu moduan bizi eta aritzeko konpe-  
tentziekin erlazionatuta. Gizartean lekua izan-  
go duten pertsonak trebatu behar ditugu, eta  
hauek gizarte horretan agente aktibo bihurtzea  
bilatzen dugu. • 2.- Etorkizunean lan munduan  
behar izango dituzten kompetentziak dagoz-  
kiena. Kasu honetan arloekin erlazio zuzena-  
go duten kompetentziak izango dira, mediku  
izateko batxilergoan landu ditzakegun kon-  
petentzia zientifikoak, adibidez. • Ikastolak zel-  
an bideratzen du hau guztia? • Hezkuntza sis-  
tema guztiaren jarraipena egiten du. Ikasle ba-  
ten etapa guztiak lotuta daude modu serio eta  
koherente batean. Kompetentziak mailaz mai-  
la eta arloz arloko jarraipena dute. Honekin  
guztiarekin, irakasleria eta orientatzaileekin  
egiten den jarraipen eta aholkularitzarekin ba-  
tera, kalitateko hezkuntza eredia lortzen  
dugu.

**EL OBJETIVO PRINCIPAL DEL BACHILLERATO ES DAR CONTINUIDAD AL CAMINO EMPRENDIDO EN LA ESO, a cuyo término el alumnado tiene dos competencias principales:** 1.- Relativas a la madurez social e intelectual. Buscamos formar a personas que vayan a tener un sitio en la sociedad y vayan a ser agentes activos. 2.- Relativas a las competencias que necesitarán para trabajar, relacionadas con distintas asignaturas. ¿Cómo logra la ikastola dar respuesta a todo esto? Realiza un seguimiento de todo el sistema educativo. Todas las etapas por las que pasa el alumno están unidas de manera seria y coherente. Gracias al seguimiento y asesoramiento de profesorado y orientadores, logramos un modelo educativo de calidad.

**LA PRÉPARATION AU BACCALAURÉAT CONSTITUE LA POURSUITE DU TRAVAIL EFFECTUÉ AU COLLÈGE ET PERMET À L'ÉLÈVE DE DÉVELOPPER DEUX QUALITÉS PRINCIPALES:** 1.- L'une relative à la maturité sociale et intellectuelle. Nous cherchons à former des personnes qui auront leur place et qui deviendront acteurs actifs dans la société. 2.- L'autre relative aux compétences nécessaires à acquérir dans les différentes matières d'enseignement, compétences indispensables dans le monde du travail. Comment l'ikastola arrive-t-elle à répondre à ces deux défis? Elle réalise un suivi complet du parcours éducatif. Toutes les étapes par lesquelles passe l'élève sont étroitement liées, avec cohérence. Grâce au suivi et conseils des enseignants et des conseillers d'orientation, nous développons un modèle éducatif de qualité.





4

**4. MIKEL BESTES, ingeniari industrialia:** "Nire fuerteak Euskara eta Ingelesa izan dira, baina zientzietako batxilergoa hartu dut, irtenbide ugariago dituelako. Luzaz pentsatu ondoren, azkenean erabaki dut. Ingeniaritza industrialia egingo dut Bilbon. Ez da gurasoen eraginagatik izan, beti esan izan baitadate gustukoaren ditudan ikasketak aukera ditzadala".  
**"Mis fuertes han sido Euskara e Inglés, pero he elegido el bachillerato científico, con más salidas. Haré ingeniería industrial en Bilbao".**  
 "Mes points forts étaient l'euskara et l'anglais mais j'ai passé le bac sciences car il offre plus de débouchés. Après mûre réflexion, j'ai choisi d'étudier l'ingénierie industrielle à Bilbao".

**17. GARBÍNE SANCHEZ, medikuntza:** "Gaztelania eta biologia gustatzen zaizkit; eta matematika ere bai. Egia esanda, biak gustatzen zaizkit, letrak eta zientziak. Irtenbide gehiago ikusten nizkion, ordea, zientzietatik joanda. Gurasoek ere zientzietatik joateko gomendatu zidaten. Medikuntza egingo dut seguru asko, biologiarekin lotura duen zerbait behintzat".  
**"Me gustan Lengua y Biología, y también Matemáticas. Me van las letras y las ciencias. Pero les veo más salidas a las ciencias. Seguramente estudiaré Medicina".**  
 "J'aime l'espagnol, la biologie et les mathématiques. En fait, j'aime les lettres et les sciences mais je pense que les sciences offrent plus de débouchés. Je vais sans doute faire médecine".



17

**19. ANE LETONA, gizarte hezitzailea** (ezkerrean): "Niri psikologia gustatzen zait. Gelako lagunekin praktikatzen dut psikologia; elkarrekin terapiak egiten ditugu. Gizarte hezitzailea izan nahi dut, eta horren barruan psikologia lantzea gustatuko litzaidake. Bilbon ala Gasteizen ikasteko asmoa daukat. Udaletxeetan eta ikastetxeetan lan egiteko balioko dit".  
**19. ASIER ASTOBIZA, historia ala ekonomia** (erdian): "Artearen historia gustatzen zait, artean etapak, korronteak eta bilakabidea aztertzea. Arraroa bada ere, arte museoak ez zaizkit gustatzen. Baina ez dakit zer ikasketak egingo ditudan, ekonomia ere gustatzen baitzait. Oso arlo ezberdinak direla jakin arren, Historiaren eta Ekonomiaren artean erabaki beharko dut".

**19. NAIARA RODRIGUEZ, zuzenbidea edo magisteritza** (eskubian): "Beharbada matematika da gehien gustatzen zaidana, baina latina ere gustukoa nuenez, gizarte zientzien batxilergoa hartu nuen. Zuzenbidea egingo dut seguru asko, edo magisteritza. Beltza ala zuria direla, baina bietan ari naiz pentsatzen. Gurasoen aldetik, nahi dudana egiteko aholkatu didate".

**ANE LETONA:** "Me gusta la Psicología. Quiero ser educadora social y tengo intención de estudiar en Bilbo o Gasteiz. Me servirá para trabajar en ayuntamientos y centros escolares". **ASIER ASTOBIZA:** "Me gusta la historia del arte, aunque no me gustan los museos de arte. Pero no sé qué estudiaré, porque también me interesa la economía. Estaré entre Historia y Economía". **NAIARA RODRIGUEZ:** "Tal vez sean las Matemáticas lo que más me guste. Pero como también me interesaba el latín, cogí el bachillerato de ciencias sociales. Seguramente estudiaré Derecho o Magisterio".

**ANE LETONA:** "J'aime la psychologie, que je pratique avec mes camarades de classe. Nous faisons des thérapies. Je veux être éducateur social. Je pense étudier à Bilbo ou Gasteiz, j'aimerais aussi étudier la psychologie". **ASIER ASTOBIZA:** "J'aime l'histoire de l'art, j'aime étudier les courants, les évolutions... Cela peut paraître bizarre mais je n'aime pas les musées d'art. Je ne sais pas vers quoi m'orienter car j'aime également l'économie". **NAIARA RODRIGUEZ:** "Ce sont sûrement les mathématiques qui me plaisent le plus. Mais comme j'aimais aussi le latin, j'ai passé un bac en sciences sociales. Plus tard, soit j'étudierai le Droit, soit je deviendrai enseignante".

5. Jolas orduak, ordu goxoak / 6. Azterketa prestatzen, irakaslea sartu aitzin / 7. Patioan ere giro lasaia / 8. Laborategian, mantal zuri eta guzti / 9. "Mens sana in corpore sano". Frontoian pilotan / 13. Irakasleak ez dira kolegak, bainan harreman estua dute / 18. Tinduf-era ikas-bidaia prestatzen



5



6



7



8



9



10



11



12



13



14



15



16



18



19





Ezkerretik hasita zutik: Nerea Artola, Paula Orube, Aitor Aranegi, Larraitz Izagirre, Jon Makaraga eta Iraia Martinez.

# LANBIDE HEZIKETA


## 16+ urte

IKUSPEGI PRAKTIKOA DUTE IKASLEEK. Lehenbailehen lanean hasi eta autonomia lortu nahi dute, beren kontura bizitzen hasi. Eta horretarako biderik laburrena, Lanbide Heziketako zikloak egitea da. Gero eta ikastetxe gehiago ari dira ikastolen sarean zikloak ematen. Europako aireak iritsi dira Euskal Herrira.

Ikastetxe horietako batzuk bisitatu genituen, Pirritx Porrotx lagun genituela berriro ere.

**FORMACION PROFESIONAL. TIENEN UN PUNTO DE VISTA PRÁCTICO.** Quieren empezar a trabajar cuanto antes y lograr autonomía. Cada vez más ikastolas impartien ciclos. Llegan aires de Europa a Euskal Herria. Visitamos algunos de esos centros, de nuevo con Pirritx y Porrotx.

**FORMATION PROFESSIONNELLE.** Les élèves ont le sens pratique. Ils veulent commencer à travailler et devenir autonome le plus tôt possible, ils souhaitent commencer à voler de leurs propres ailes. La formation professionnelle est la voie la plus adaptée pour cela. La formation professionnelle est proposée dans de plus en plus d'ikastola. L'Europe est parvenue jusqu'au Pays Basque. Nous avons visité plusieurs de ces établissements, toujours en compagnie de Pirritx et Porrotx.





1



## 1. Lanbide Heziketaren eremua zabaltzen hasi dira ikastolak / 2. Klase teorikoak eta praktikoak, txandaka / 3. Gero eta hurbilago, lanean hasteko eguna

LANBIDE HEZIKETAREN ARLOA ZABALTZEN HASI DIRA IKASTOLAK. Ikastolena dira lanbide heziketara ikasle gutxien bideratzen duen sarea. Euskal Herrian lanbide heziketa aukeratzeko duten ikasleen kopurua oraintxe iritsi da %50era, eta zifra hori %16an dago ikastoletan. Europa Iparraldeko herrialdeetan, aldiz, %70era iristen da lanbide heziketan ikasketak egiten dituzten ikasleen kopurua.



**LAS IKASTOLAS AMPLÍAN LA FP.** Somos la red que menos alumnos envía a la FP. En Euskal Herria elige esta opción el 50% y en las ikastolas el 16%. En el norte de Europa, el 70%. **LES IKASTOLA S'Y SONT MIS.** Les ikastola sont les écoles qui orientent le moins vers ce type d'enseignement. Si 50% des élèves du Pays Basque choisissent la voie professionnelle, ce chiffre tombe à 16% au niveau des ikastola.



Ana Monge  
INMAKULADA IKASTETXEA  
ZUZENDARIA

## GAUR EGUNGO LANBIDE HEZIKETAK ESKAINTZEN

**DIZKIGUN ABANTAILAK ASKO DIRA:**

- Lana aurkitzeko biderik zuzenena da, eta gizarteak eskaintzen dituen lan postu guztietatik %70a lanbide heziketak betetzen du.
- Ikastetxe guzietan beren ikasleentzat antolatzen dituzten praktikak inguruko enpresetan gauzatzen dira eta horri esker gure ikasleen formazioa lan munduko errealitatearekin uztartzen da.
- Kalitatezko formazioa eskaintzen da gure ikastetxeetan, eta IKTak zein pedagogia metodologia berriak erabiltzen dira gure ikasleen ikaskuntza / irakaskuntza prozesuan.
- Gure ikasleen % 9ak praktikak atzerrian egiteko aukera izaten du, gure errealitatea Europara zabalduz eta Europako errealitatea gureganatuz.
- Zikloak inguruko enpresen egunerokotasunean erroturik daudenez, oso praktikoa dira eta, horren ondorioz, zikloa gainditzen duten ikasleen batzuek oso altua da.
- Bestalde, ikasten eta firmatzen jarraitu nahi izanez gero, Lanbide heziketak Unibertsitateko atak irekitzen dizkie gure ikasleei.

**LAS VENTAJAS QUE OFRECE LA FORMACIÓN PROFESIONAL ACTUAL SON MUCHAS:** es el camino más directo al empleo, cubriendo la FP más del 70% de los puestos que ofrece el mercado. Las prácticas que todos los centros ofrecen a su alumnado se llevan a cabo en empresas de la zona. En nuestros centros se imparte formación de calidad y se utilizan las TIC y nuevas metodologías pedagógicas. El 9% de nuestro alumnado realiza sus prácticas en el extranjero. Los ciclos son muy prácticos, por lo que el porcentaje de alumnos que los superan es muy alto. La Formación Profesional abre las puertas de la Universidad al estudiante que quiera seguir formándose.

**LES AVANTAGES DE LA FORMATION PROFESSIONNELLES SONT MULTIPLES:** c'est le chemin le plus court qui mène au monde du travail: la Formation Professionnelle permet d'accéder à plus de 70% des offres d'emploi du marché. Nos centres scolaires proposent des stages dans les entreprises situées dans la même zone géographique. Nos centres scolaires dispensent une formation de qualité et utilisent TIC et nouvelles méthodes pédagogiques. 9% de nos élèves effectuent leurs stages à l'étranger. Les cycles d'enseignement étant basés sur la pratique, le pourcentage des élèves réussissant les examens est très élevé. La Formation Professionnelle ouvre les portes de l'Université aux élèves désireux de poursuivre leur formation.





**4**  
**OTEIZAK ETA TXORIERRIK INDUSTRIARI LOTUTAKO ZIKLOAK DITUZTE:** merkataritza, marketinga, mekanika, elektronika...; Inmaculadak osasunari edo gizarte arloari lotutako zikloak ditu (farmazia, erizaintza, erradioterapia, gizarte integrazioa eta haur hezkuntza), Arizmendik kirolarekin eta eraikuntzarekin lotutakoak, eta Ibaizabalek, berriz, Haur Hezkuntzakoak.

**OTEIZA Y TXORIERRI, CICLOS DE INDUSTRIA.**

Ver cuadro en página 48.

OTEIZA ET TXORIERRI (FILIÈRE INDUSTRIELLE).

Voir page 48.



**LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEA SARTU DIRA IKASTOLEN ELKARTEAN.** Orain bi urte sartu zen ikastolen sarean Oteiza Lizeo Politeknikoa (179 ikasle), Tolosako Inmakulada Ikastetxea (307 ikasle) iaz, eta Txorierrri Politekniko Ikastetgia (290 ikaslerekin) sartu da aurten. Arizmendi Ikastolak 125 ikasle ditu Arrasaten, Ibaizabalek 50 Durangon, eta dagoeneko Bilbon, Harrobi Fundazioa eraikitzen ari da Ikastolen Elkartea.

**CENTROS DE FP ENTRAN EN LA FEDERACIÓN DE IKASTOLAS.** Oteiza Lizeo Politeknikoa de Zarautz hace dos años (179 alumnos); Inmakulada Ikastetxea de Tolosa (307) el año pasado y el Politécnico Txorierrri de Derio (290) esta año. En Arrasate Arizmendi Ikastola tiene 125 alumnos, Ibaizabal de Durango 50 y ya está en construcción Harrobi Fundazioa en Bilbo.

**LES ÉTABLISSEMENTS PROFESSIONNELS INTÈGRENT LA FILIÈRE IKASTOLA.** Le lycée polytechnique Oteiza (179 élèves) a rejoint la filière il y a deux ans, le collège Inmakulada de Tolosa (307 élèves) l'année dernière et le centre polytechnique Txorierrri (290 élèves) cette année. L'ikastola Arizmendi compte 125 élèves à Arrasate, Ibaizabal 50 à Durango. La Confédération des Ikastola est en train de construire la Fondation Harrobi à Bilbo.



**LANERATZE TASA ALTUAGOAK DITUZTE.** "Lanbide heziketan %80tik gora dira zikloa bukatu eta lanean hasten direnak, eta ziklo jakin batzuetan ehuneko ehun dira lana aurkitzen dutenak" esan zuen Ana Mongek, Lanbide Heziketako koordinatzaileak.

**ALTAS TASAS DE EMPLEO.** "En la FP, el 80% termina el ciclo y encuentra trabajo. En algunos ciclos, el 100%. Es más fácil que con una licenciatura universitaria".

**INTÉGRATION RAPIDE AU MONDE DU TRAVAIL.** "Plus de 80% des élèves trouvent un emploi dès la fin de leur formation, dans certaines filières ce chiffre peut atteindre 100%".



4.13. Marketing-a gaur egungo merkatuari begira /  
 9. Laborategian, irakaslearen gidaritzapean /  
 8. Elektrizitatean, ate automatikoak konpontzen /  
 10.12.16. Gero eta handiagoa da nesken presentzia  
 Lanbide Heziketan / 14.15. Europa Iparraldean  
 ikasleen %70 doa LBHra. %50ra iritsi gara hemen





## LANBIDE HEZIKETA IKASTOLEN ELKARTEAN

### ARIZMENDI IKASTOLA

- ERDI MAILA
- Erizaintza laguntzailea
  - Arreta soziosanitarioa
- GOI MAILA
- Gorputz eta kirol ekintzen sustapena
  - Eraikuntza proiektuen aplikazioa

### BARANDIARAN

- GOI MAILA
- Gorputz eta kirol ekintzen sustapena

### IBAI EZKERRA

- ERDI MAILA
- Informatika sistemen ustiapena
  - Natur ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaketa
- GOI MAILA
- Gorputz eta kirol ekintzen sustapena
  - Aplikazio informatikoen garapena

### IBAIZABAL

- GOI MAILA
- Haur hezkuntza
- INMAKULADA IKASTETXEA
- ERDI MAILA
- Erizaintza laguntzailea
  - Farmazia teknikaria
- GOI MAILA
- Diagnosi irudia - radiologia
  - Radioterapia
  - Osasun dokumentazioa
  - Haur hezkuntza
  - Gizarte integrazioa

### OTEIZA POLITEKNIKOA

- ERDI MAILA
- Mekanizazio Teknikaria
  - Ekipo eta instalazio elektronikoa
- GOI MAILA
- Proiektu Mekanikoak Garatzeko Teknikaria
  - Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoetako Teknikaria
  - Mekanizazio Bidezko Produktzioen Teknikaria
  - Industri Ekipoa Mantentzeko Teknikaria

### TXORIERRI POLITEKNIKOA

- GRADO MEDIO
- Mecanizado
- GRADO SUPERIOR
- Desarrollo de Proyectos Mecánicos
  - Sistemas de Regulación y Control Automáticos
  - Sistemas de Telecomunicación e Informáticos
  - Química Ambiental
  - Gestión Comercial y Marketing
  - Producción por Mecanizado

18.19. Erizaintza, masajea... gorputza osatzeko teknikak bereganatzen / 17. Euskara, lana aurkitzeko baldintza bihurtu da / Lanbide Heziketako ikastetxeak sartu dira Ikastolen Elkartearen



17



18

EUROPA IPARRALDEAN IKASLEEN %70 DOA LHRA. Urtero kopuru horiek lan merkatuko beharretara egokitzen dira. Euskal Herrian ere sortzen diren lanpostuetatik lanbide heziketa eskatzen dutenak %60-70 izaten dira. Ehuneko 10ekoa da, bestalde, LHn Sokrates proiektuarekin atzerrian ikasten duten ikasleen portzentajea. Bigarren urtea atzerrian egiten dute horiek.

EN EL NORTE DE EUROPA, EL 70% A FP. Los puestos de trabajo que surgen en Euskal Herria piden FP en un 60-70%. El 10% estudia el segundo curso en el extranjero con el proyecto Sócrates.

EUROPE DU NORD: PLUS DE 70% EN FP. Le nombre évolue en fonction du marché. En Pays Basque, 60-70% des postes à pourvoir demandent une formation professionnelle. 10% des élèves font leur deuxième année à l'étranger.

ORAIN IRITSI GARA HEMEN %50ERA. "Galdeketa egina dut ikastoletan, eta uste dut gogoeta bat egiteko ordua iritsi dela. Euskal Herrian %50 lanbide heziketara joaten bada, ikastoletan kopuru hori ez da iristen %20ra. Ikastolak orain arte ez dira mundu horretan sartu, eta desfase izugarria eragin du horrek", jarraitu zuen Ana.

Hemos llegado al 50%. "Es momento de reflexionar. Si en Euskal Herria el 50% va a FP, en las ikastolas no llega al 20%. Tenemos un gran desfase", prosiguió Ana. NOUS AVONS ATTEINT LES %50. "Je pense qu'il faut mener une réflexion au sein des ikastola. Au Pays Basque 50% choisissent la voie professionnelle, ce chiffre est inférieur à 20% à l'ikastola".



19

energia =  $m \cdot c^2$

energia garbia eroso eta segurua

naturgas energia

Naturgas energia etorkizuneko energia da, garbi jokatzen duelako gurekin eta gure ingurumenarekin.

EROSKI zurekin

GARBERA - URBIL ARRASATE

Productos a €1, €2, €3

¡¡Rompe los precios!!



Testuliburu eta ikasmaterialetan adituak

ARRASATE • BATONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUJEA • TOLOSA



# PIRRITX PORROTZ ETA

Aiora Zulaika eta Joxe Mari Agirretxe, Euskal Herriko pailazo maitagarriak  
“Dantza eginez kantatzeko ereserkia”



Tarteka ibiltzen omen dira pailazoz jantzita autoan, ekitaldiren batetik bestera presaka doazelako. “Zapatak, noski, aldatu egin

behar dira, bestela ezin da autorik gidatu. Jendeak harrিতා begiratu ohi digu”, esan zuten Pirritxek. Beren azken lana

**IKASTOLEN KONFEDERAZIOAK** eskatuta grabatu den “**IKASTOLA KANTA. GORA GURE IKASTOLA**” izan da, aldizkariaren zenbaki honekin batean zure eskuetara iritsi dena, eta aurrerantzean ikastola guztien ereserki bilaka daitekeena.

**ERESERKI GEHIENAK ESKU BAT BIHOTZEAN JARRI ETA BEGIRADA ZERUAN DELA AURPEGI SERIOAREKIN KANTATZEKOAK** IZATEN DIRA. Baina ikastolak bereziak gara, eta gure ereserki kalerajiran ibiliz kantatzeko da, ezin izan baitzitekeen bestela, Pirritx eta Porrotz tartean izanda. Pirritx (Aiora Zulaika) ikastolako ikasle ohia da eta umetatik ezagutzen zuen kantaren jatorrizko bertsioa.

#### **HAU EZ DA ZUTIK ETA GELDIRIK KANTATZEKO ERESERKI BAT.**

**PIRRITX:** Biribilketa baten erritmoa du eta, ondorioz, dantza eginez kantatzeko da, oso doinu alaia baitu. Aire Ahizpek Iparaldeko ukitu bat eman diote, Eñaut Elorrieta Ken 7koak ukitu rockeroa erantsi dio, gu ere hor gabiltza saltoka, eta nik uste dut bihotza alaitzeko moduko kanta egin dugula.

**PORROTZ:** Horrek ez du esan nahi ereserki bat ez denik. Errepikak baduela uste dut ereserki batek behar duen indarra. Aire Ahizpek kantatzen dute errepika haurrekin eta gurasoekin batean, eta Eñautek eta Pirritxek kantatzen dituzte zatiak elkarriketa modura. Kanta honen arrakasta segurtatua dago, Eñautek fans kopuru izugarriak baititu ikastolako ikaslearen artean. Eta gurasoen artean ere ez gutxi.

#### **HITZAK EGITEKO ORDUAN ZER IRIZPIDE IZAN DITUZUE?**

**PORROTZ:** Hitzak egiteko orduan ikastolak gaur zer diren hartu nahi izan dugu kontutan, zer irakasten duten eta nola. Hiru zati ditu kantak. Lehenengoan ikaslearen autonomia eta talde lana aipatzen dira: “Goizean jaiki, gosalduta, ohea egin, jantzi eta banoa ikastolara. Atarian

bildu naiz alai lagunekin”, dio. Bigarren zatian, “Euskal Herrian hazi eta euskaraz ikasi” hasten denean, euskal curriculumari egiten zaio erreferentzia, eta gure nortasunetik, Euskal Herriatik, joan nahi dugula mundura esaten da. Eta hirugarrenean, “Koloretan amestu, koloretan bizi” hasten denean, gure baloreak aipatzen dira, eta ametsen, helburuen eta ilusioen garrantzia nabarmentzen da.

**PIRRITX:** Gu ere koloretakoak gara. Helduok askotan grisagoa ikusten dugu errealitatean, baina guk, pailazo bezala, koloretako iragazki batetik pasatzen dugu errealitatea eta mezu itxaropentsuak ematen saiatu ohi gara. Hori umeengandik ikasi dugu. Harrigarria da zer-nolako ilusioak ditugun umetan, eta helduak bihurtu ahala ilusio horiek nola itzaltzen diren eta mingosten garen barrutik. Ilusio txikiak eta handiak ere oso garrantzitsuak direla adierazten saiatzen gara.

**PORROTZ:** Saioka taldeak 70eko hamarkadan kaleratu zuen kanta hartu eta eguneratu egin dugu bai musikaren eta bai hitzen aldetik. Gitarra elektrikoak sartu dira, baina gure instrumentuei, dultzainari eta trikitiari lekuri kendu gabe. Xabier Zabalak egin du



egokitze lan hori. Guk hitzak eta ahotsak jarri ditugu, baina Euskal Herri osoko beste hainbat ahots bildu nahi izan ditugu. Aire Ahizpek (Miren, Amaia, Paxkalin) hartu dute parte, Bizkaitik Eñaut Elorrieta Ken 7ko kantari eta ikastolako irakasleak, eta Arabatik Oiongo ikasle, irakasle eta gurasoek. Oiongoak Araba Euskarazeko kanta egitetik ezagutzen genituen eta gonbidatu egin genituen. Musikari talde handi batek ere hartu du parte, tartean Igor Telletxea bateria-jotzaileak, Joseba Tapia tritikiarrik, Xabier Leturia pandero-jotzaileak, Luis Vega gitarra eta baxuak edo Iluleitz hari laukoteak.

#### **KALERATU DEN CDAK KANTAREN LAU BERTSIO ESKAINTZEN DITU.**

**PIRRITX:** SAIOKA kantak berak ematen zuen hitzak ikastola

#### **IKASTOLA KANTA**

El himno de las ikastolas, que se distribuye en el CD-Audio que va con este número de la revista, lleva en su estribillo la fuerza de unirse en danza con ritmo de jalekita. Es, por lo tanto, un canto que se baila. Esta iniciativa de la Confederación de Ikastolas se ha compuesto sobre la base de una canción de los años 70 y grabada por los payasos de mayor éxito de los últimos años, Pirritx eta Porrotz, junto a conocidas voces como Aire Ahizpak, el cantante de Ken 7 Eñaut Elorrieta, y los alumnos y padres de la ikastola de Oion. Colaboran músicos como Tapia y Leturia. El CD ofrece varias versiones. Una de ellas permite sumar la letra adaptada por cada ikastola, adaptándola a cada una de ellas.

#### **IKASTOLA KANTA**

La chanson devenu célèbre dans ikastola dans les années 70 grâce au groupe Saioka a été reprise par Pirritx et Porrotz. A l'initiative de la Confédération des Ikastola, les élèves, enseignants et parents de l'ikastola San Bizente de Oion chantent aux côtés des deux clowns. Participent également Xabier Zabala, Aire Ahizpak et Eñaut Elorrieta. Sur ce CD figurent quatre versions de la chanson: la première version est la version originale. Sur la deuxième, seul le refrain est chanté afin que chaque élève puisse chanter ses propres paroles. Sur la troisième figurent les partitions permettant d'interpréter la chanson à la txirula. La quatrième version est une version karaoké.

bakoitzera egokitze aukera, eta lekuan lekuko zuzendariaren eta irakasleen izenak sartzen zituzten. Guk, bertsio osoaren ondoren, bigarren bertsio bat grabatu dugu errepikarekin bakarrik, ikastola bakoitzak lekuan lekuko hitzak egin ditzan.

Hirugarren bertsio bat dago txirulaz jotakoa, ikasleek ere txirulaz jo dezaten. Eta laugarren bertsioa karaokera egiteko da.

**PORROTZ:** Beste bi bertsio ere egin ditugu, baina ez dira kaleratzeko: bata Aire Ahizpek osorik kantatua da eta opari moduan emango diegu, eta bestea guk biok kantatua da.

#### **ZER MODUZ GERATU DA BIGARREN HAU?**

**PIRRITX:** Oso polita. Porrotzek esaten duen moduan, ez dakigu ondo edo gaizki abesten dugun, baina ez da inor indiferente geratzen.

#### **ERRAZA IZAN AL DA KOLABORAZIO HORIEK DENAK BILTZEA?**

**PORROTZ:** Denek baietz esan izan digute. Egia esan, gehienak lagunak dira. Grabaketa atalka egin da, noski, bakoitzak bere aldetik. Bi astetan egin genuen lan guztia. Arazoa aurkezpena egiteko eguna jartzea izaten da. Ez da posible izaten horrenbeste jendekek parte hartzen duen disko bat kaleratzeko egunean denak biltzea.

#### **“IKASTOLA” ALDIZKARIKO ALE BEREZI HONETARAKO ETAPAZ ETAPA IBILI ZARETE**

#### **HAURREKIN. ZEIN ETAPATAKO IKASLEEKIN KONPONDU ZARETE ONDOEN, 0-3KOEKIN?**

**PIRRITX:** Ez pentsa, telebistako formatuan oso ondo onartzen gaituzte 0-3koek, baina gertutik askoz ere handiagoak eta builosoagoak gara, eta izutu egiten dira askotan. **PORROTZ:** Edo jaio berriak dira eta ez dira enteratzen, edo behin hiruzpalau urte dituztenerako atzetik korrika hasten zaizkigu. Adin horretatik gora etapa guztietakoekin konpondu ginen oso ondo.

**PIRRITXEK (AIORAK) 5 URTEKO SEMEA DU, ETA PORROTZEK (JOXE MARI AGIRRETXEK) 14 ETA 11 URTEKO BI SEME. ORAIN ABESTIAREN BIDEKLIPIAREN GRABAKETAREKIN PENTSATZEN NASITA DAUDE.**

